



TOLOSAKO
UDALAREN

TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLOSAKO EKINBIDE ETXEAREN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEKO LANKIDETZA HITZARMENA

CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA REGULAR LAS RELACIONES ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA Y EL CENTRO DE INICIATIVAS TURÍSTICAS DE TOLOSA

Tolosan, 2015eko maiatzaren 4ean.

En Tolosa, a 4 de mayo de 2015.

ELKARTU DIRA:

Alde batetik, Ibai Iriarte San Vicente jauna, Tolosako alkatea.

Eta, bestetik, Elena Basagoitia Kildal andrea, Tolosako Ekinbide Etxea elkarteko presidente.

HONELA HARTU DUTE PARTE:

Ibai Iriarte San Vicentek TOLOSAKO UDALAREN izenean eta haren ordezkari gisa, abenduaren 16ko 57/2003 Legeko 2.1.ñ artikuluaren arabera.

Elena Basagoitia Kildal TOLOSAKO EKINBIDE ETXEaren izenean (hemendik aurrera, TEE) eta haren ordezkari gisa. Elkarteak Tolosako Euskal Herria plazako 1ean du helbidea, eta IFK hau du: G-20069167. Elkartearen batzar orokorrak 2013ko urtarrilaren 17an hartutako erabakiaren ondorioz hartzen du parte.

Bi aldeek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri hitzarmen hau formalizatzeko.

AZALDU DUTE:

I. TEE 1967an sortutako elkartea pribatua dela, eta onura publikoa 1994an aitortu ziotela.

Hauek dira bere helburuak: Tolosaren ezagutza eta kultura sustatu eta bultzatzea.

II. TEEk, sortu zenetik, Tolosako bizitza kulturalean lan garrantzitsua egin duela, herrian festa eta kultur jarduera asko garatuz. Gainera, azken urteetan bere antolaketa lanak gehien bat nazioarteko eragina duten jardueretan edo euskal kultur

REUNIDOS:

De un parte, Ibai Iriarte San Vicente, Alcalde de Tolosa.

De otra parte, Dña Elena Basagoitia Kildal Presidenta de la asociación Centro de Iniciativas Turísticas de Tolosa

INTERVIENEN:

D. Ibai Iriarte San Vicente, en nombre y representación del AYUNTAMIENTO DE TOLOSA, en virtud del artículo 2.1.ñ de la Ley 57/2003, de 16 de diciembre.

Dña Elena Basagoitia Kildal en nombre y representación de CENTRO DE INICIATIVAS TURÍSTICAS DE TOLOSA (en adelante, CIT), domiciliada en la plaza Euskal Herria, 1 de Tolosa, con CIF número G-20069167, en su calidad de Presidenta según acuerdo adoptado por la Asamblea General, con fecha de 17 de enero de 2013.


Ambas partes se reconocen la capacidad necesaria para la suscripción del presente Convenio.

EXPONEN:

I. Que el CIT es una asociación cultural privada constituida en 1967 y declarada de utilidad pública en 1994.

Su objeto lo constituye el promover e impulsar la cultura y el conocimiento de Tolosa.

II. Que, desde su constitución, el CIT juega un papel preponderante en la vida cultural de Tolosa, promoviendo gran parte de las iniciativas culturales y festivas en el Municipio. Adicionalmente, en los últimos años su esfuerzo organizador se ha concentrado en actividades de mayor proyección internacional o que



arloari etorkizun zabalagoa emango dioten jardueretan uztartu dituzte.

III. Bere jardueren artean nabarmentzen dela Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, 1969az geroztik gauzatzen duten nazioarteko abesbatzen arteko lehiaketa.

Bere helburua munduko abesbatza onenak elkartzea da, herrialde guztiako estilo, interpretazio, ahots literatura, ahots hezkuntza eta era ezberdinak elkartrukatzeko, eta, era berean, Euskal Herriko tradizio musikal eta kulturala ezagutaraztea.

Urtez urte, munduko abesbatza lehiaketarik garrantzitsuenetarikoa izatea lortu du.

IV. Horrez gain, beste jarduera bat ere nabarmena dela: urtero antolatzen duten TITIRIJAI - Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia.

Txotxongiloen inguruko profesionalen bilkura izaten da, eta hainbat emanaldi egiten dituzte: testu klasikoak kolorez beteriko antzezpenekin nahastuta, garaikideak eta berritzaireak. Herrialde ezberdinako konpainiek beren ikuskizunak eskaintzen dituzte Tolosako hainbat gunetan.

Huetariko batzuk publiko orokorrari irekiak izaten dira, eta beste batzuk euskal lurraldeko ikastetxeekin hitzartuak.

Urtero, kalitate handiko erakusketa monografikoa ere antolatzen dute, sorkerri konkretu bateko txotxongiloez osatua.

V. TEEk Amalur Jardunaldiak ere antolatzen dituela, natura, bidaia eta antropologiari buruzkoak, gai zehatzen inguruau, eta beste hainbat kultur jarduera ere bai, Tolosako Udalarekin elkarlanean.

VI. Halere, TEEren proiektu berri eta garrantzitsuenetarikoa Tolosan Nazioarteko Txotxongiloen Zentroa sortzea izan dela, besteak beste dokumentazio zentroa, museoa, antzerki produkziorako gunea, eta

aportan un nuevo horizonte al panorama cultural vasco.

III. Que, entre sus actividades, destacan la organización anual del Certamen Coral de Tolosa, concurso coral internacional que tiene lugar en Tolosa desde 1969.

Su intención es reunir los mejores coros del mundo, a fin de hacer posible el intercambio de estilos, interpretación, literatura coral, educación vocal y modos de cada país y, asimismo, dar a conocer la tradición musical y cultural del País Vasco.

Con el transcurso de los años, se ha convertido en uno de los concursos corales más importantes del mundo.

IV. Adicionalmente, entre dichas actividades destaca la organización anual del Festival Internacional de Marionetas de Tolosa TITIRIJAI.

Se trata de un encuentro para los profesionales de los títeres y las marionetas, con diversas actuaciones: historias de textos clásicos, mezcladas con representaciones coloristas, modernas e innovadoras. Las compañías nacionales de diferentes países presentan sus espectáculos en diferentes espacios de Tolosa.

Se ofrecen, tanto sesiones abiertas al público en general, como concertadas con colegios de todo el territorio vasco.

Anualmente, organiza también exposiciones monográficas de gran calidad, centrada en los títeres de un origen geográfico concreto.

V. También organiza el CIT las Jornadas Amalur, jornadas de la naturaleza, viajes y antropología, con carácter temático, así como otras actividades culturales en colaboración con el Ayuntamiento de Tolosa.

VI. En todo caso, uno de los más relevantes y recientes proyectos del CIT ha sido el consistente en dotar a Tolosa de un Centro Internacional del Títere, que, entre otros, cuenta con un centro de documentación, un museo, espacios para producción teatral o de



antzerkirako espacio moderno que dituena, eta zentroko berezko jarduerez gain, Tolosako kultur eremu aberatsa osatzen duten jarduera asko jasotzen dituena.

VII. 2011ko ekainaren 9an lankidetzako hitzarmen berri bat izenpetu zuten Udalak eta TEEk. Hitzarmen horretan hainbat zehaztapen jaso ziren, besteak beste, honako arlo hauek ukituz: TEEri aitortu beharreko laguntza, zentroaren espazioen gaineko konpromisoak, hizkuntza normalizatzeko arauak, Segimenduko Batzordearen eraketa, etab.

VIII. TEEk bere jarduerak aurrera eramateko baliatzen dituen kanpoko zein barneko diru sarrerak nabarmen murriztu dira azken bi urteotan, eta ikusita ekonomiaren egoera orokorra, badirudi murrizketa hori handiagoa izan daitekeela etorkizunean.

Arrazoi horregatik, Tolosako Udalak, zentroaren jarduerak egoki garatu daitezen, eta kontuan hartuz Tolosako herritarrentzat interes publikokoak direla, asmoa du hobetzeko aipameneko jarduerak sustatzeko ematen duen dirulaguntza, behin-behineko izaerarekin, 2013an. Erregimen hori luzatu ahal izango da hurrengo urteetan, baldin eta bi aldeek horrela erabakitzentz badute. Udalak eman beharreko laguntzaren hobekuntza horrek ekar lezake, era berean, konpromiso batzuen aldaketa zentrotako espazioen erabilerari dagokionez, hain zuzen ere, 2011n sinatutako hitzarmenean adostutakoei buruz, hitzarmen honetan ezarritako moduan edo etorkizunean sinatu daitezkeenetan jartzen den eran.

IX. Beraz, lehenbizi hartu beharreko erabakia hau da: etetea 2011ko ekainaren 9an formalizatutako hitzarmena, hura hitzarmen honek edo dagokionak ordezkatzen ezartzen diren zehaztapenekin. Gainerakoek, aipameneko zehaztapenen kontrakoak ez diren heinean, indarrean jarraituko dute, bere osotasunean erregulatzeko 2011ko hitzarmenean ezarritako lankidetza erregimena.


ensayos y un espacio escénico moderno que, además de las actividades propias del Centro, acoge gran parte de las actividades que conforman el rico panorama cultural de Tolosa.

VII. El 9 de junio de 2011 se suscribió un nuevo convenio de colaboración entre el Ayuntamiento y el CIT, en el que se adoptaban las oportunas determinaciones sobre la ayuda a reconocer al CIT, los compromisos en orden de los espacios del Centro, el cumplimiento de las normas de normalización lingüística, la constitución de la Comisión de Seguimiento, etc.

VIII. En lo que respecta a los ingresos tanto externos como internos con los que el CIT cuenta para el desarrollo de sus actividades se han reducido de forma notable durante los dos últimos años y la situación económica general hace previsible que este descenso sea mayor en el futuro.

Es por ello que el Ayuntamiento de Tolosa, a fin de garantizar el buen desarrollo de las actividades del Centro, que es de interés público para los ciudadanos de Tolosa, pretende mejorar la subvención que aporta para el fomento de las actividades señaladas, transitoriamente, durante 2013, pudiéndose prorrogar éste régimen en años posteriores siempre que las partes así lo acuerden. Esta mejora de la ayuda a conceder por el Ayuntamiento podrá conllevar también la modificación de los compromisos en orden al uso de los espacios de Centros acordados en el convenio suscrito en 2011, en el modo que establezca este convenio o los que se pudieran suscribir en el futuro.

IX. Por tanto, como acuerdo previo se ha de establecer la suspensión del convenio formalizado el 2011, el 9 de junio, a fin de sustituirlo por este u otro que le sustituya con las determinaciones que se establezcan, estando los restantes, que no se opongan a ellas, vigentes a fin de regular en su integridad el régimen de colaboración establecido en el repetidamente citado convenio de 2011.



Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Eten egiten da 2011ko ekainaren 9ko hitzarmeneko lehenbiziko klausula, Udalak TEEri emateko izendatutako dirulaguntzari dagokionez, hau da, jardueraren aurrekontu orokorraren % 5,5 emateaz.

Bigarrena: 2015 urtean Udalak TEEri emango liokeen dirulaguntza, hala izendatuta, 80.000 eurora helduko litzateke. Eta egindako gastua justifikatu beharko luke dirulaguntzen arautegi orokorraz eta dagokion udal ordenantzak xedatuaren arabera.

Hirugarrena: 2015ko ekitaldian Udalak erabili ahal izango du espacio eszenikoa 100 ordutan. Era berean, lokalaren eta bere ekipoen arduradun teknikoaren lagunza izango du. Horrek guztiak ez dio suposatu behar inolako kosturik Udalari, ordu hauet teknikoaren ohiko ordutegietakoak baldin badira. Ohiko ordutegiak honoko hauet izango dira

Astelehen, asteazken eta ostegunetan: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Astearteetan: 8:00etatik 12:00etara

Ostiraletan: 8:00etatik 12:00etara eta 15:00 etatik 19:00etara.

Ordutegi honetatik kanpora, teknikoaren lana ordaindu beharko du CIT-TEE elkartearak onartuta dauzkan prezioak aplikatzu.

Laugarrena: Klausula hauet aldatzten ez duten hartan indarrean jarraituko du 2011ko ekainaren 9an sinatutako hitzarmenak, alegia, Tolosako Udalaren eta Tolosako Ekinbide Etxearen arteko harremanak arautzeko lankidetza hitzarmenak.

Y de común acuerdo, ambas partes formalizan el presente convenio estableciendo las siguientes

CLÁUSULAS

Primera: Se suspende la previsión de la cláusula primera del convenio de 9 de junio de 2011, en lo que se refiere a la subvención nominativa a conceder por el Ayuntamiento al CIT, que debería ascender al 5,5 % del presupuesto general de la actividad.

Segunda: Se prevé para 2015 como subvención nominativa a conceder por el Ayuntamiento al CIT una cantidad de 80.000 euros, debiéndose justificar el gasto realizado de conformidad con lo establecido en la normativa general de subvenciones y la ordenanza municipal correspondiente.


Tercera: Durante el ejercicio de 2015 el Ayuntamiento podrá hacer uso del espacio escénico durante 100 horas, en la que contará con la colaboración de un técnico encargado de local y sus equipos, sin que ello suponga coste alguno para la entidad municipal, siempre que el trabajo del técnico se produzca dentro de horario habitual, entendiendo por tal el siguiente:

Lunes, miércoles y jueves de 9 a 13.00 y de 15.00 a 19.00

Martes: de 8 a 12.00 h. Viernes: de 8 a 12.00 y de 15.00 a 19.00

Fuera de este horario, se cobrarán los gastos del técnico según los precios que para este servicio tiene aprobados el CIT

Cuarta: En lo no modificado por lo establecido en estas cláusulas, estará vigente lo acordado en el "Convenio de Colaboración para regular las relaciones entre el Ayuntamiento de Tolosa y el Centro de Iniciativas Turísticas de Tolosa", de 9 de junio de 2011.





TOLOSAKO
UDALA

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren bi ale izenpetzen dituzte bi aldeek, idazpuruan aipatutako data eta tokian.

Y en prueba de conformidad, firman ambas partes el presente convenio, en duplicado ejemplar, en la fecha y lugar indicados en el encabezamiento.

ALKATEA

Ibai Iriarte San Vicente

CIT-eko LEHENDAKARIA

Elena Basagoitia Kildal

Nire aurrean,
IDAZKARIA

Jose Luis Unanue Ugalde